


BATASUN NAZIONALA: ERABAKIAK  
RESOLUCIONES DE LA UNION NACIONAL

---



HAUTESKUNDE  
SINDIKALAK

DOKUMENTAZIO  
ZENTROA

TXI 10024



ELECCIONES SINDICALES

Gure eskaintzari hauteskunde hauetan emango diogun edukin politikoa eta soziala adierazi nahi dugu. Eskuharki langile orok jaso behar duen gure eskaintza hau, L.M.ko sektore jakin batzuri zuzendurik egongo da. Horregatik, abiapuntu bezala ezinbestekotzat jotzen dugu Hego Euskal Herrian egun bizi dugun egoeraren analisisa egitea eta, ezin duda, Blokeko erakundeak Batasun Nazionalan onartu zen Interbentzio Bideak izeneko txostenean jadanik finkaturiko premisa hau oinarritzat hartuz, orain dagokigun zeregina, gure presentzia sindikala indartzeko beharrezko lanak, bitarteko teknikoak eta giza bitartekoak zehaztea da.

Agian iruditu arren errepikatze hutsa besterik ez dela, Batasun Nazionalaren paradaz eginiko kontsiderazio batzu ekarri nahi ditugu gogara:

— Osotasun bateko partaideak gara eta Blokearen baitan sortzen den estrategia politikoaren arabera jokatu behar dugu.

— Aurreko puntuak ondorioztat dakar gai politiko-sindikaletarako koadroak sortu beharra, azpimarratu nahi dugularik, bestalde, bizi dugun fase honetako lehen helburua, KAS proiektuaren zerbitzurako koadroen antolamendu hau sendotzea dela. Dena den, aipatu heburua eta hazkunde kuantitatiboa ez dira kontrako asmoak.

— Guk ere parte hartzen dugun proiektu honen dinamikak hala eskatzen bait du, gure diskurtsua fase honetan L.M.ko sektore jakin bati zuzentzen zaio. Sektore jakin honek, klase kontzientziaz gain, nazio kontzientzia handia du, ez finkaturik baina bai prozesuan.

— Gure antolakuntzako berezitasunek hala eskaturik, L.A.B.en barruan ez dute lekurik joera edo zeregin zatikatzaileek.

— Ideologia eta antolakuntzako gure berezitasunen eraginez, espazio politiko-sindikal jakin bat betetzeko joera dugu. Mugimendu sindikalean, beraz, proiektu bakarra eta ongi identifikatua, alternatiboa eta egun dagoen beste ezein proiektu sindikalek asimilatu ezin dezakeena gara.

— Aurreko puntuan aipatu dugun espazio horri aurrera egin dugu eta L.M.ren osotasunean garrantzi handiko presentzia lortu dugu.

— Lan sakona eta eraginkorra, eta batez ere etenik gabekoa burutuz gero, eta gure lan bereziarekin loturik beharrezko baliabideak eta profesionaltasuna eskuratuz gero, aukera izango dugu gure eragina sustrai eta zabal dadin. Gauza jakina da gure eragin hau ANEMk bere osotasunean egin aurrerabidearekin batera, eta homogeonotasun baten barruan, eman behar dela.

— Patronalak eta Estatuak krisiaren aurrean eskaintzen duten irtenbideari aurre egiteko, gure interbentzio bideetan oinarrituz burruka zuzena burutu behar dugula eta fase honetan, kontutan izanik Blokeak eta NAEMk markatu duten estrategia politikoa eta guk bete nahi dugun espazio politiko-sindikala, ezin ditugula aipatu interbentzio bideak aldatu.

## ERITZI BATZU KRISIARI BURUZ

1983an ekin zitzaion birmoldaketa prozesuaren ildotik, jadanik buruturik dago lehen kontu garbiketa sektore oso garrantzitsuetan —irakur bedi Burdingintza integratua, Altzairu bereziak, Untzigintza, Alor zuriko Elektratresnak...—, birmoldaketa neurri horiek sorturiko erantzunkizun soziala gainditzea lortu delarik. Ez da ezinezkotzat jo behar —aitzitik, gertu ikusten da— plantilei erasango dien bigarren kontu garbiketa, baina honako hau sotilagoa izanen da, sortuko dituen burruka guneak ere apalagoak izango direlarik.

Jakin arazi diren berrindustrialtze inbertsioei dagokienez, berriz, hauek industria modernizatzerá eta teknologia berria sartzera zuzendurik daude, enplegu perspektibak oso urriak direlarik.

Birmoldaketaren bigarren aldi batetan sektore txikiagoak, baina euskal ekonomian garrantzi handikoak direnak, ukituko dira: Makina Erreminta, Papera, Torlojoteria, Esku Erreminta ... denetara 18 azpisektore eta 50.000 langile inguru saretzen direlarik. «Plan»-aren arabera, 10.000 langile daude soberan. Gobernu Baskongadoa buru den kontu garbiketa honetarako 30.000 milioi esleitu dira. Era guztietara, kopuru hau eskasa da, eta kontutan izanik ez dela azterketa xeheturik egin eta EEan sartzearatik derrigorrez onartzean presaka jokatu dela, pentsa daiteke emango zaion irtenbidea ez dela oso bikaina izango eta are sindikalismo erreformistarentzat proiektu honek sinesgarritasuna galduko duela.

Birmoldaketa deitu politika hau, lanpostuak sortzeko gaiez den berrabiadura eraginkorreko fase batetan industria kokatzeko gai izango da.

Nahiz laburki egin, aipamen berezi bat behar dute nekazari eta zerbitzu atalak. Nahiz Elkarte Autonomoan nekazaritzak neurri murriztatua izan, alderantziz Nafarroan garrantzi handia du. EEE-an sartzeak behinik behin lehenengo 7 urteetan, zeren bereziki espezializazio, berritze eta Nafarroako lurraldeen bilketarako oinharriak esleituko direlako, jabetza txikiaren eta enpleguaren murriztea dakar ondorio gisa zuzen zuzenean. «Elkarte autonomoko» nekazariak kanpoko esnekien sartzea bide dela eragin handia jasan beharko dute eta epe laburrean «baserriaren» produkzio-unitate eginkizuna zalantzan jarriko da.

Zerbitzu atalari dagokiona bestalde, lanerako eskuen gutxitzea dator informatizazioaren bidetik. Bistan da, «ez traumatiko» murrizte eta estankatze fase honen ondoren, sobe-rakin neurri gogorrak hartzera pasako direla. Kontuz bankan gertatu liteenakin!

## EUROPAKO ELKARTE EKONOMIKOA -E.E.E.

EEE-an sartzeak estatuko ekonomiari kolpe handia emanen dio dudarik gabe., eta arantzelen babesá murrizteak berriz konpetibitatearen galera erakarriko du. Europatar Batzordeak dionez bere ikerlan batetan, «P.I.B. delakoaren %3galera suposatzen du». Hazkunde ekonomikoaren gelditze honek lanpostu mailan kaltegarria bilakatzea ezinbestekoa da.

Arantzelen lurreratzea mugen babesen kentzearen erdia suposatzen du. Beste erdia B.E.Z. sartzeak desagertzen du, horrela barne kargak jasaten duten konpentzazio zerga desagertzen delako eta baita inportazioei zerga-arinketa ere, expoztazioen subentziorako iturri garrantzitsu bat halegia, E.E.E dionez seguru ez bada ere, baliteke laguntza alternatiborako tresnak sortzeko Elkarteko arauetan eragozpenak ipintzea. Inportazioaren babezak subentzionatzea eta expoztazioaren subentzioak, P.I.B.eko % 1.9 Industriaren laguntzarako esleitua dagoena kentzea suposatzen du. Honek Estatuak ekonomiari sartzen dizkion subentzioen erdia osatzen du, eta eraberdinean enpresen aurrezkien %20 da. Gainera pentsa liteke B.E.Z. erabilketak inflazionista efektu bat ekarriko duela.

ekoizkortasun maila ezberdinekin, nahiz estatuan alokairuak baxuagoak izan, unitate bakoitzeko alokairu kostoak EEE-koak baino batezbesteko %12 altoagoak izatea lortuko dute. Lehen aipatutako txosten horrek zehazki zera dio: «Garbi dago hainbat sektoreetan enpresa batzuk desagertuko direla, lurreratzeak katean ondorioak ekarriko ditudala, eta horrela efektu kaltegarri ugari kaleratuko liratekela. Hau dena gertatzeko arrisku handia dago».

Konpetibitatearen oreka birlortzeko alokairuen izoztearekin batera inbertsioaren gehitze garrantzitsu bat eman behar da hein berdinean. Posibilitate txikia ikusten da hau gertatu ahal izateko, zeren Estatuko Industriagintzaren irabazi mugak E.E.E.ak baino handiagoak ez direlako, eta atxekimenduak oraindik gehiago murriztuko du.

## MAKROEKONOMI ERITZI BATZU

Ez da asko azaldu behar gehiago langabezia hasten dijoala -jadanik 3 milioi.

Pagamendu Balantzan lortu diren aurrerapenak, esportazioen murriztapen garrantzitsuak erabat geldierazi dituzte haiek; ondorenak PSOE-ren neurriak datozte -IRPF, Errentaren zergak, e.a.- barne kontsumoari berrabidura bat eman nahian.

Inflaziozko mailak Gobernuaren aurreikuspenak —%7 1985rako— %8,1raino aldatuak izan dira.

Defizit Publikoa gutxitu nahia eta Botere Faktikoekin hartutako hitzarmenak bete nahia, nahitaez Asegurantzia Sozialari dagokion dirua murriztea suposatzen du. (A.S. erreforma).

Aipatu bakarrik jakina, langitzarako legeetan eman diren neurri berriak, denak zuzenean lan-merkatua malgutzeko eta botatzeak merkeago lortzeko. Baita ere Kontratuen apurketarako sartu nahi diran erreztasunak (AES-en lortutako hitzarmenaren helburu horretarako zuzentzen baidira) expedienteen bidea erabiliz. Gai hau protesta foko bat pistu tezakeen txinpart bat izan liteke.

Beraz, azken urteotan ikusi ditugun joerak krisialdiaren baitan, sakontzen jarraituko dutela fase zail honetan esan behar dugu. Langileriaren eta herri kapen eros-ahalmena galtzen jarraituko du orain arte konstanteki eman diren bideetatik: langabezia, txiki eta erdi enpresen itxitzeak, alokairuen izozketa, eta guzti honi joera berri bat agertuko da, hots, sektore publikotik ematen diren prestazioak eta sozial laguntzen murrizketa.

Ikuspegi honen aurrean, posibilitate garrantzitsuak zabaltzen zaizkigu. Kontutan eduki behar dugu Estatuan sartuta dagoen erreformismo sindikalaren joera, zutabe askotan erakitzen dela nahiz gertakizun nabaria izan langileriaren barnean duen eragin erreala gero eta txikiagoa izan. Sindikalismo iraultzaileak ezin dezake gelditzerik onhartu. Eta egoera honetan, garbi esan behar da ez dugula konsignen aldaketarik behar prezeski, baizik eta hasitako bidean sakontzen jarraitzea, oraindik bide luzea falta zaigulako hain zuzen helmugara iristeko; homogeneousotasun bat lortzeko egin behar ditugu esfortzuak eta interbentzio sindikal serio eta efektibo bat lortzeko era berriak diseinatu behar ditugu, horretarako denbora eta bitarteko guztiak ipiniz. Baita ere, N.A.E.M.ren poitika garapena ongi baloratuz, L.A.B.en hazkuntza bultzatu behar dugu, koadroen finkapena lagunduz zeren behar honetan oraindik asko falta zaigulako. -Nahiz industriagintza sektorean murrizketa izan joera nagusia, hor berton guk ditugun aukerak gure presentzia hobetzeko garrantzitsuak direla epaitzen dugu. Industriagintzako sektorean egindako bananbanako ikerketak azaltzen digu enpresa askotan gure alternatiba oraindiano ez dela iritsi, eta hemendik sortzen da behar bat: zein produkzio lekutan hobetu behar dugun gure presentzia.

Azkenik egiaztatu den errealitate bat: Gure sindikalgintza-salbuespen batzuk kanpokomiteetako Delegatueta oinarritzen dela. Egia da beroiek sindikalgintzaz duten ikuspegia erreformismoarekin konparatuz ez dela berdina, eta aurrerantzean ere beharrezkoa dela bide berdinatik jarraitzea, baina horrek ez du kentzen gure sindikatoak delegatueta duen laguntzirik garrantzizkoena. Horregatik hauteskunde hauen garrantzia.

# HAUTESKUNDE POLITIKAZ GURE ESKAINTZA

Gure mezuaren zehaztasuna nahiz eta gerorako utzi; ardatz hauetan oinarritu behar du:

- 1.- Hauteskunde prozesuan parte hartu dugula erakutsiz bereziki. Honek ez du esan nahi, nahiz eta fase honetan Enpresako komitea organu bezala babestu, inoiz gure sindikal errepresentazio alternatibo bezala kontsideratzen dugunik, ez eta ere hauteskunde antidemokratiko hauek kritikatzeko eskubidea kentzen digunik.
- 2.- Gaurko langileriaren egoera, erreformixmoz beterik dagoen estratagi politiko-sindikal oker baten ondorio bezala azaldu. Honek LAB sendotzera joango den proiektu politiko oso baten beharra agertzen digu. Mobilizazioaren bidez gizarte aldakuntza posibilitatuko duena.
- 3.- Errealitatea aztu gabe, lantegi eta sektoreko arazoetan kezkatuz patronalaren eraso eta errepresioei erantzuteko sindikato sendo eta gogor bezala azaldu behar dugu. Irudi gogor eta erradikal honek, gure sindikalgintzaren ardatz izango den arazoen azterketa sendo benetako batekin loturik joan behar duelarik.

## GURE AURKEZPENAREN ASPEKTU BATI BURUZ

Aipagarria da, urte berean Hauteskunde Legislatiboaketa Sindikalak egitea. Dударik gabe bi aspektu hauek, HBren emaitzek batez ere, langilegoarengan eragina izango dute, zuzenki ez bada ere, bai animo edo eritzi egoera bat, emaitzen araberan lagundu edo oztopatu dezakeena.

Hala ere, hartu kontutan, hauteskunde Sindikalak leku hertsietan ematen direla, eta hauen ezaugarri nagusia hautagai-hautaleen elkar ezaguera sakona delarik, eta, beraz, propaganda eta imaginaren balio txikiagoa da.

Alde honetan, egiten den galdera hau da: zein izan behar du HBren jarrerak H. Sindikaletan eta hauetan LABen aldeko laguntza. Gai hau argitzeko erakunde bakoitzak (HB eta LAB) bete behar duen papera zein den, eta zer esiji dakioken bakoitzari.

Erakunde bakoitzak EANMen jokatu behar duen paperaren araueran, uste dugu HB, KAS alternatibaren alde ahalik eta herri indar gehiena biltzeko jaiho zela. Herri Batasunaren sorreran erabakitakoa aipatu behar da «H.B.k erantzun organizatua izan behar du, eta bere erakundeak, bere programan aipatutako rebindikazioak lortzeko bilduriko indar iraultzaile eta aurrerakoien bilkuran islada garbia izan behar du». Baita ere «H.B.k, batasun historikotzat hartuta, ezin du izan, inolaz ere, plataforma politiko batetan kojunturalki, elkartu diren sektore borrokalari batzuen batuketa.» «H.B.k, beraz, EANM-ren alde indarrak batutzeko E.H.L-ren sektore zabalak era trinko batetan bildu nahi ditu».

Era horretan, H.B.k aurreratzeko beharrezkotzat jotako konfigurazioaren beraren araueran, prozesuaren garapenean bete behar duen papera desbideratu dezakeen elementurik ezin dugu sartu.

H.B. LABekin (KASeko erakunde iraultzailea langile mugimendurako...) identifikatzearen faktorea sartzan badugu, ondorioak txarrak izango dira, dudarik gabe. Hau da, H.B.ri laguntzen dioten herri mailak, AENMri laguntzen jarraitzeko, maila ez militanteetatik, eta askotan ondo asentatu gabeko kontzientzia, LABi botatu behar diotela pentsatzea (bestela ezingo bait lukete H.B.n egon) gutziz negatiboa izango litzateke.

Aldi berean, ez dago dudarik, H.B.ren botante batzu ELAn edo CCOOetan militatzen ari dira, edo afiliaturik daude... eta ezin dakieke exiji LABekin identifikatzea H.B.ri botatzen arren.

Beste alderdi bat da, LABek klase erakunde bezala eramaten duen norabide sindikala L. Mugimenduaren. Hau gure interbentzio jarreretan definituta daude, eta aurreratzeko beharrezkotzat ipini dira, eta LAB-H.B. («klase artekotasunaz») gehiegizko loturak baldintza negatiboak ekarriko lizkiguke.

Beraz, gure konklusioa hau da: H.B.ren propagandazko laguntza publikoak gutxi suposatuko luke guretzat, eta H.B.rentzat galera bat izan liteke parte hartzen duen hauteskunderen ezaugarriak bereziak direlako eta boto aukera finkatu gabe dagoelako; hemen gertaera kojunturalek eta propagandistikoek pisu handia hartzen dute.

Garbi gera dadila ez dugula inolaz ere H.B.rengandik aislatu nahi. Juxtu kontrakoa nahi dugu, baina emango digun laguntzak barnetik izan behar du, Herrietan mugitzen eta elkarrekin lan egiten, eta hain plataforma garrantzitsua lehengo hauteskundeetan baino hobeto aprobetxatzen.

## HAUTESKUNDEETAKO ZENBAIT ASPEKTU

Zenbait aspektu nabarmen kaltegarriak hauek dira: LOLS deritzaion legea; E. T. Lege Organikoaren aldaketa eta Polizial Legea. Lenengoak zenbait aspektu sindikaletaz duen kalteari —sindikatoan baloratu direnak—, komiteetako ordezkariak 2-tik 4 urtetara luzatzea eta delegatu hoiek —kontabilizaziorako— hiru hilabeteko epea izatea erantsi behar zaio; 32/1984-ko Lege Organikoan berriz 50 langiletik gorako lantegietan enpresako komiterako hautaketa zerrenda itxien bidez egingo dela esaten da; eta azkenik Polizial Lege Proiektu horrek berriz, polizia municipalari esparruko ez den sindikato batetan afiliatuta egotea gaberazi egiten dio. Azaldu ditugun aspektu hoiek ahalegin sendoz autsi beharko ditugu.

Hemen jarritako bideari eutsiz, gure zerrendak LAB siglen barruan egongo diren militante eta kidez osaturikoak izango dira. Bi oinarri hoien aldaketa, lehenik tokatzen den lurraldeko zuzendaritzak baloratua izango da.

Nabaria da hauteskunde hauetan hartu dezakegun laguntza geuk egindakoa izango dela. Erresultaduak azken urte hauetan egindako lanaren fruitu izango direlarik.

Orain, gure sindikal presentzi berriak eta esperientzi faltak sortutako zenbait akats zuzentzen joan behar ditugu. Gutxiengo salbuespenak kendu ondoren, gauden lekuetan aldakuntzak izango direla pentsatuz, ez gauden sektore eta zonetara zabaltzea lortuko behar dugu. Sektorial eta territorialeko erreferentzia hartuz, gure ezarrera noraino iristen den jakin behar dugularik.

ESPAZIO TERRITORIALA:  
ZONA, HERRI, POLIGONO, LANTEGIA.

Gu non ez gauden jakiteko zerrenda bat egitea behar beharrezkoa da.

Geure akatsak kontuan izanik, M.V.L.N.-ko organizazioekin batera programa zabal bat egin behar dugularik.

ESPAZIO SEKTORIALA:  
SEKTORE PRIMARIOA, INDUSTRIA ETA ZERBITZUAK

Dudarik gabe, gure presentzia bereziki, sektore industrialari loturik dago, eta azpisek-

tore batzuetako hutsuneak lurraldeko espazioan egindako lanarekin bete daitezkeela pentsatzen dugu. Beraz, apartadu honetan, sektore primarioan eta hirugarrengoan oinarritu behar gara:

## SEKTORE PRIMARIOA:

Nabarmenak dira sektore honetan sartzeko zailtasunak. Bere zabaltasunagatik eta (Delegatuak ordezkariak) lortzeko posibilitateengatik, arrantzako sektorean mugatu behar gara. Hau ELA-k erabat hartuta dauka eta guk ez dugu minimoki antolaturiko presentzia sektorialarekin kontaktzen. Sektoreko eleksioak, ekintza sindikalen jarraikortasun batekin, planifikatu beharko genituzke. Aurrera-pauso bat suposatuko duen edozein ondorioak, nahiz eta hau txikia izan, oso positiboa gerta daiteke.

## ZERBITZUAK:

Hona hemen posibilitateak dituen sektore bat, eta gure indarrak zuzendu behar dituguna. Area honen hedapenak eta bere sakabanaketak sektore guztiko eleksioen programakuntza oztopatzen du. Merkatal ihardunerak, enpresa txiki pila batekin: adar ezberdinetako komertzioak (elikadura, oihalgintza, ostalaritza, metalari loturiko komertzioak, ...) nahi izango genukeen bezala inguratzea galerazten digu. Ahal dugun gehiena inguratzen saiatzean, ostalaritza eta erostetxe haundietan (Hipermerkatu, El Corte Ingles, etab.) saiatu beharko ginateke.

Beste azpisektore batzuk, aditasun eta planifikazio berezia eskatzen dute, erantzute elektoralaren figura sortuz:

- Garraioak? Ez horrenbeste, dituen posibilitateengatik, baizik eta azpisektorearen garrantziarengatik.
- Banka.
- Irakaskuntza. Interbentzioko linea bat planifikatzeko garaian ahal gaude?
- Administrazioa. H.B.-rekin koordinatzea ezinbestekoa den apartaduetako bat da hau.
- Osasuna.

## KOORDINAZIOARI BURUZ

Eleksioetako koordinazioa lurraldeko organoetatik eraman behar da. Markatutako dinamika berarengatik, istituzioak barne, «SMAC», probintzi-idazkaritzak Eleksio Sindikalen bizkarrezurra izan behar dute, gehienezko organoak (N.S. eta N.B.) interbentzioko lineak onartu eta aurkeztu ondoren. Kasu batzutan, sektore koordinazioa lurraldekoarekin probintzi-idazkaritzak gainditu beharko ditu, eta Nazional S.-ra pasa.

Probintzi mailan eginkizun batzuk banatu beharko dira, eta honakoen erantzuleak izendatu: herrialdeko koordinazioa, Propaganda, Prentsa. Prozesu elektoralaren segimendu zehatzak, liberatu edo zonako erantzuleek probintziako bilera espezifikokoak egitera behartuko du probintzi-idazkaritzetako iraunkorrekin.

## PROPAGANDARI BURUZ

Han bi apartadutan bana dezakegu:

NAZIO MAILA:

- Propaganda orokor guztia:
- Eleksioei buruzko legeria (normen argitarapena).

- Presentazioa (prentsurrekoak, elkarrizketak)
- Kartel eta panfletoak.
- Irratietako kuñak kontratatzekeo posibilitatea, e.a...
- H.B. Nazional Koordinazioa.

#### PROBINTZI MAILA:

- Sektore eta lurraldeko propagandaren Koordinazio espezifikoa [kontutan eduki nazional Koordinazioa Kontseilatzen duten sektoreak (N.S.)].
- Lantoki, zonako debatetan, e.a.retan sartzeko posibilitatea.
- H.B. Probintzi Koordinazioa.

## MEDIOAK

Gelditzen dena enbete honetan bota behar dugu.

Zona mailan, militante egokiak liberatzeko posibilitatea estudiatu behar da. Hau koiunturalki izango litzake (eszedentziak, langabeak, e.a...)

Seinalatu, elekzio aldiaren aurreko antolaketa: ail egatzen ez garen sektoreen ezagunera, lantoki berrietara eraman gaitzaketen erakundeekin kontaktoak, sektorearen errealitatearen ezaguera eta bere arazoekin bat datorren memoria baten antolaketa, propaganda eta komunikabideen erantzuleak, e.a..., itxaro dugun ondorioa lortzen lagunduko digun basea dela.

---

# ELECCIONES SINDICALES

Nos parece importante señalar el contenido político y social de nuestra oferta electoral, que indudablemente, tiene que dirigirse, principalmente y sin excluir a ningún trabajador, a sectores concretos del M.O. Para ello, es necesario partir de un análisis de la situación que atravesamos en Euskadi Sur, e indudablemente, tener presente los objetivos políticos que dan forma y razón de ser a las organizaciones componentes del Bloque. Partiendo de esta premisa, fijada ya en la ponencia de Lineas de Intervención aprobada en la Unión Nacional, tenemos que pasar a concretar los trabajos, medios técnicos y humanos que nos permitan fortalecer nuestra presencia sindical.

Aunque pueda parecer una reiteración debemos recordar algunas de las reflexiones realizadas con motivo de la Unión Nacional:

- Formamos parte de un todo y nos debemos a la estrategia política que nace del Bloque en que participamos.
- El punto anterior determina la creación de cuadros en materia político-sindical, remarcando que nos encontramos en una fase donde el objetivo principal —de ninguna forma antagónico con un crecimiento cuantitativo— es consolidar esa organización de cuadros que sirva al proyecto KAS.